# ¡GRAFICAS DE BIZKAIA EN LUCHA!

## MOVILIZACIONES EN EL SECTOR

Ante la situación de bloqueo de la mesa negociadora del convenio de Artes gráficas de Bizkaia, los sindicatos ELA-LAB-CCOO-UGT enviamos el 26 de marzo a la patronal del sector una plataforma conjunta con 10 puntos para llegar a un acuerdo en la negociación del Convenio sectorial.

Los contenidos de la plataforma conjunta que hemos presentado son los siguientes:

- Vigencia: 3 años.
- Retribuciones:
  - Actualización de las tablas salariales a enero de 2023 con los IPCs de 2012 a 2023 (16,8%) y correspondiente abono de atrasos.
  - Incrementos para los 3 años de vigencia por encima del IPC.
  - Desaparición de la categoría 1,47.
  - Mejora y actualización de diferentes pluses.
- Ningún elemento regresivo en el convenio.
- Reducción de jornada.
- Limitación del uso de ETTs.
- Creación de una comisión de igualdad y elaboración de un Protocolo contra el acoso sexual, por razón de sexo y otras conductas contrarias a la libertad sexual y la integridad moral.
- Adecución de las licencias a la legalidad vigente. No computar los descansos como parte de los permisos y la reducción y adaptación de la jornada como derecho.
- Derecho de subrogación para todas las personas subcontratadas.
- Eliminación de las mutuas y obligatoriedad de realizar estudios de cargas de trabajo y riesgos psicosociales.
- Clausula de inaplicación que garantize el cumplimiento del convenio.

El último Convenio de Artes Graficas de Bizkaia es del año 2011. En estos últimos 10 años, la patronal, simplemente, no ha querido saber nada de cara a negociar un nuevo Convenio sectorial. Incluso intentó en 2013, eliminar el convenio provincial y aplicar a las personas trabajadoras del sector el convenio estatal. CEBEK fracasó en su intento, ya que una sentencia reconoció que el último Convenio de Bizkaia, era ultraactivo.

En junio de 2023, se volvió a constituir Mesa Negociadora. Sin embargo, en las 10 reuniones realizadas, CEBEK, ha demostrado una nula voluntad negociadora. Han realizado planteamientos regresivos en diferentes cuestiones; y no quieren saber nada de la recuperación del poder adquisitivo perdido los últimos años. Además, otras reivindicaciones sindicales, también han sido rechazadas.

La presentación de una plataforma conjunta buscaba y busca romper el bloqueo de la patronal en la mesa de negociación. Pero la patronal sigue enrocada en su postura y en la última reunión celebrada el 2 de abril, la respuesta de la patronal ha vuelto a ser decepcionante e inmovilista. CEBEK mantiene su plataforma llena de recortes. Ha señalado que no contempla atrasos; ni incrementos por encima de IPC; y mantienen los elementos regresivos (como por ejemplo en el tema de flexibilidad). La proxima reunión será el 8 de abril a la tarde en el que CEBEK dará una respuesta más concreta tras consultar con sus empresas asociadas

Ante esta situación de bloqueo y ante la actitud de CEBEK, ELA, LAB, CCOO y UGT hemos decidido comenzar una campaña de activación y lucha en el sector con el objetivo de lograr un acuerdo digno. Para ello, se socializarán mociones en los comités de empresa y representantes de las plantillas; y se realizarán diferentes movilizaciones en el mes de abril. Los sindicatos del sector lo tenemos claro. O la patronal desbloquea la negociación y se activa una negociación real en la mesa de Artes gráficas de Bizkaia, o llamaremos a todas las personas trabajadoras del sector a exigirlo desde sus empresas y desde la calle.

**¡ CONVENIO DIGNO YA !**

**ELA - LAB - CC.OO - UGT**

# BIZKAIKO GRAFIKAGINTZA BORROKAN

Bizkaiko Grafikagintzako hitzarmenaren negoziazio mahaia blokeatuta dagoenez, ELA – LAB -CCOO eta UGT sindikatuok 10 puntuko plataforma bateratua bidali genion sektoreko patronalari martxoaren 26an, sektoreko hitzarmenaren negoziazioan akordio batera iristeko.

Aurkeztu dugun plataforma bateratuaren edukiak honako hauek dira:

• Indarraldia: 3urte.

•Ordainsariak:
  - 2023ko urtarrileko soldata-taulak eguneratzea, 2012tik 2023ra bitarteko KPIekin (% 16,8), eta atzerapenak ordaintzea.
  -Indarraldiko 3 urteetarako igoerak, KPIaren gainetik.
  - 1,47 kategoria desagertzea.
  - Hainbat plus hobetzea eta eguneratzea.

• Hitzarmeneko elementu atzerakoirik ez.

• Lanaldi murrizketa.

• ABLEen erabilera mugatzea.

• Berdintasun batzorde bat sortzea eta protokolo bat egitea sexu-jazarpenaren, sexuan oinarritutako jazarpenaren eta sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako beste jokabide batzuen aurka.

• Lizentziak indarrean dagoen legeriara egokitzea. Atsedenak baimenen gisa ez zenbatzea, eta lanaldia murriztea eta egokitzea eskubide gisa.

• Subrogazio eskubidea azpikontratatutako pertsona guztientzat.

• Mutuak ezabatzea eta lan kargei eta arrisku psikosozialei buruzko azterlanak egiteko betebeharra.

• Hitzarmena ez aplikatzeko klausula, hitzarmena betetzen dela bermatzeko.

Bizkaiko Grafikagintzaren azken hitzarmena 2011koa da. Azken 10 urteotan, patronalak, ez du ezer jakin nahi izan sektoreko hitzarmen berri bat negoziatzeko. 2013an hitzarmen probintziala desagertzen eta sektoreko langileei estatuko hitzarmena aplikatzen ere saiatu zen. CEBEKek porrot egin zuen, epai batek aitortu baitzuen Bizkaiko azken hitzarmena ultraaktiboa zela.

2023ko ekainean, Negoziazio Mahaia eratu zen berriro. Hala ere, egindako 10 bileretan, CEBEKek negoziatzeko borondate eza erakutsi du. Planteamendu atzerakoiak egin dituzte hainbat gaietan; eta ez dute ezer jakin nahi azken urteetan galdutako erosteko ahalmena berreskuratzeaz. Gainera, sindikatuen beste aldarrikapen batzuk ere baztertu egin dira.

Plataforma bateratu baten aurkezpenak negoziazio mahaian patronalaren blokeoa hautsi nahi zuen. Baina patronalak bere jarreran errotuta jarraitzen du, eta apirilaren 2an egindako azken bileran sindikatuen plataforma bateratuari emandako erantzuna etsigarria eta inmobilista izan da. CEBEKek murrizketak dituen plataforma mantentzen du. Bileran, patronalak adierazi du ez duela atzerapenik aurreikusten, ezta KPIren gainetik igoerarik ere; eta elementu atzerakoiei eusten dietela (malgutasunaren gaian, adibidez). Hurrengo bilera apirilaren 8an izango da, non CEBEKek erantzun zehatzagoa emango du, sektoreko enpresekin kontsulta egin ondoren.

Blokeo egoera honen aurrean eta CEBEKen jarreraren aurrean, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuok, sektorean aktibazio eta borroka kanpaina bat hastea erabaki dugu, akordio duin bat lortzeko helburuarekin. Horretarako, mozioak sozializatuko dira enpresa batzordeetan eta plantilletako ordezkarien artean, eta mobilizazioak egingo dira apirilean. Sektoreko sindikatuok argi daukagu. Edo patronalak negoziazioa desblokeatzen du eta benetako negoziazioa aktibatzen da Bizkaiko Grafikagintzaren Mahaian, edo sektoreko langile guztiei deituko diegu beren enpresetatik eta kaletik eskatzera.

## HITZARMEN DUIN BATEN ALDE

**ELA - LAB - CC.OO - UGT**